

2024KO EUROPAKO PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEAK

- HAUTESLE ERROLDAREN BULEGOA -

POSTA BIDEZ BOZKATZEKO ESKABIDEA – ORRI OSAGARRIA

Orri osagarri honekin batera doan inprimakia hautesle bakoitzak bete behar izango duen eskabide-eredua da dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzari hautesle-errolako inskripzio-ziurtagiria eskatzeko. Horrela, **ekainaren 9an** egingo diren hauteskundeetan botoa postaz eman ahal izateko prozedura abiaraziko du.

NORK BOZKA DEZAKE POSTA BIDEZ?

Posta bidez bozka dezakete hauteskunde-egunean boto-eskubideaz erabiltzeko dagokien udalerritik kanpo egongo direla aurreikusten duten hautesleek.

Atzerrian bizi diren hautesleak aldi baterako Espainian baldin badaude, posta bidez bozkatzeko agiriak Espainiako helbide batera bidaltzeko eska dezakete, eta, horretarako, posta bidez bozkatzeko eskabidea bete behar dute "x" jarriz "Atzerrian bizirik" atalean.

Orobat, gaixotasuna edo ezintasun fisikoa dela-eta hauteslekura joaterik ez duten hautesleek ere postaz bozkatu ahal izango dute.

Botoa posta bidez emateko eskaera egiten eta onartzen bada, ezin izango duzu mahaian botoa eman.

POSTA BIDEZ BOZKATZEKO PROZEDURA:

A. ESKABIDEA

Eskabidea interesdunak berak bete behar du.

Eskabidea eta bidaltzeko gutun-azala Hautesle Erroldan inskribatuta dagoen probintziara igorri beharko dira.

Gaixotasunik edo ezintasunik izanez gero (medikuaren egiaztagiri ofizial bidez egiaztatu behar dena), eskabidea hauteslearen izenean egin dezake pertsona baimenduak, notariotzan edo kotsuletxean emandako agiriaren bitartez. Baimen-agiri hori banakakoa izango da hautesleko eta ezin izango da agiri berean hautesle bat baino gehiago sartu, ez eta pertsona berak hautesle bat baino gehiago ordezkatu ere (agiri hauek **doan** eman behar izango dira). Kasu horietan eskabidea ordezkariak berak sinatu behar izango du.

Medikuaren egiaztagiria eta baimena eskaera bidaliko den gutun-azalean sartu behar izango dira.

B. AURKEZTEKO TOKIA

Eskabidea, behar bezala bete eta sinatu ondoren, **Espainiako** edozein **Posta-bulegotan** aurkeztu behar da. Eskabidea jasoko duen langileak interesdunari NAN agiria aurkezteko eskatuko dio eta sinadurak bat datozen egiaztatuko du. Ez da inola NANaren fotokopiarik onartuko.

Posta arruntez bidalitako eskabideak ez dira onartuko.

C. POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO EPEA

Deialdia egiten denetik bozketa egunaren bezpera baino hamar egun lehenago arte (**maiatzak 30**) eska daiteke.

Nolanahi ere, posta bidez bozkatzeko eskubidea erabiltzeko asmoa baduzu, ez itxaron azken unera arte. **Bete eskabidea lehenbailehen.**

D. POSTA BIDEZ BOZKATZEKO AGIRIAK BIDALTZEA

Hautesle Erroldaren Bulegoaren Probintzia Ordezkaritza egokiak posta bidez bozkatzeko behar diren agiriak bidaliko ditu, maiatzaren 20tik aurrera. Eskabidean adierazi duzun helbidera bidaliko ditu eta zure izenean.

Agiri horiek jaso izanaren ziurtagiria interesdunak berak sinatu behar du, nor den frogatu eta gero.

E. POSTA BIDEZKO BOTOA BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatuaren bidez bidali behar da ekainaren 5ean baino lehen.